


Euskal AEko industria-prezioak % 0,3 jaitsi dira 2025eko irailean, aurreko hilaren aldean

2024ko irailaren aldean, industria-prezioek % 0,3ko igoera izan dute

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,3 egin dute behera 2025eko irailean, aurreko hilaren aldean. Iraileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 0,3 igo da.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du 2025eko irailean, aurreko hilaren aldean, jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,0ko jaitsiera) eta *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 2,3ko jaitsiera) direla. Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako igoera handienak izan dituzten sektoreak *Koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea* (% 2,5eko igoera) eta *Material eta ekipoen fabrikazioa* (% 1,5eko igoera) dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondasunen sailkapenari jarraituz, 2025eko abuztuaren aldean, *Energiaren* prezioak % 0,1 egin du gora. *Kontsumo-ondasunen* prezioek, aldiz, % 0,6 egin dute behera, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioek % 0,7 behera egin izanaren ondorioz, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioek ez baitute aldaketarik izan. *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,6 jaitsi dira eta *Bitarteko ondasunetan* jaitsiera % 0,2koa izan da.

Urte artean, 2025eko iraila 2024ko irailarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak izan dituzten adarrak dira *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 13,2ko igoera) eta *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 10,2ko igoera). Aitzitik, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* adarreko prezioek urte arteko % 5,6ko jaitsiera izan dute eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* adarrekoek % 1,3koa.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	112,7	-0,3	0,3
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	136,9	0,5	2,0
Manufaktura-industria	116,0	-0,1	0,7
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	128,0	0,2	2,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	111,5	-0,7	0,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	124,2	0,2	-1,3
Kokeak eta petrolioaren finitzen	112,9	2,5	1,7
Industria kimikoa	127,2	-0,5	0,3
Botiken fabrikazioa	119,2	0,0	10,2
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	116,0	-0,1	-1,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	111,2	-0,6	-1,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	124,5	-2,3	13,2
Material eta ekipoen fabrikazioa	124,4	1,5	9,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	113,4	-1,0	0,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	115,7	-0,3	0,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	116,8	-0,2	0,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	75,4	-4,0	-5,6
Ura	130,8	0,6	3,5
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	124,3	-0,6	3,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	114,1	-0,0	1,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	127,1	-0,7	3,7
Ekipo-ondasunak	115,9	-0,6	1,7
Bitarteko ondasunak	115,2	-0,2	-0,7
Energia	96,8	0,1	-0,9

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Urriaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondasun-talde nagusien prezioen urte arteko aldakuntza gero eta handiagoa izan da *Kontsumo-ondasunetan*, eta % 3,2ko igoera izan du, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorretan* izandako % 3,7ko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorretan* izandako % 1,0eko igoeraren ondorioz. Prezioak % 1,7 igo dira *Ekipo-ondasunetan* 2024ko irailarekin alderatuta. *Bitarteko ondasunetan*, aldiz, prezioek % 0,7 egin dute behera urte arteko terminoetan, eta, azkenik, *Energian* urte arteko % 0,9ko jaitsiera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **89,57ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62